

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

### EUSKO JAURLARITZA

#### LAN ETA ENPLEGU SAILA

#### Arabako Lurralde Ordezkaritza

#### **Arabako erainkuntza eta lan publikoak sektorearentzako 2021eko urterako lan egutegia**

Ebazpena, Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Arabako erainkuntza eta lan publikoak sektorearentzako 2021eko urterako lan egutegia erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea Hitzarmenaren Kodea: 01000435011981.

#### AURREKARIAK

2020ko abenduaren 21ean aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, aipatutako hitzarmen kolektiboko negoziazio batzordearen akta, enpresaburuen SEA Empresas Alavesas eta langileen ordezkariak UGT eta CCOO, 2020ko abenduaren 3ko sinatutakoa, 2021ko urterako lan egutegia.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuko 15.1.h artikulua –Lan eta Justizia Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2017ko apirilaren 21eko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Hitzarmen kolektiboaren negoziazio batzordeak hartutako akordioa aipatutako Langileen Estatutuari buruzko Legeko 88, 89 eta 90. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki sinatu da.

Honen ondorioz,

#### EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 5a

*Arabako lurralde ordezkaria*  
**CARMEN DE CELIS CUEVAS**

**Arabako eraikuntzaren sektoreko hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordearen akta**

2020ko abenduaren 3an, Vitoria-Gasteizen, SEA Enpresas Alavesas enpresa-elkartearen lokaletan (Posta kalea 32, 7), CCOO eta UGT sindikatuetakako ordezkariak eta SEA Enpresas Alavesas elkartu ziren, guztiak izaki Arabako eraikuntzaren sektoreko 2017-2020ko hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordekideak, eta honako hau adostu zuten:

Adostu dute,

Lehenengoa. Arabako eraikuntzaren sektoreko 2021eko lan-egutegia onartzea (aktari erantsi diogu).

Bigarrena. Arabako eraikuntzaren sektoreko hitzarmenaren 32. artikulua ezartzen duenez, hitzarmenak gidatuko ditu langileen legezko ordezkariekin ados jarrita lanaldi hitzartua antolatzeke egutegia ezartzen duten enpresak, eta 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen ezarriko da egutegia. Langileen legezko ordezkariak ez dagoenean, langileekin beste lan-egutegi bat hitzartzen duten enpresek lan-egutegi horren kopia bidali beharko diote batzorde paritarioari, langileek eta enpresak sinatuta, 2021eko otsailaren 15a baino lehen. Xede horietarako, CRLren egoitzan zehazten da batzorde paritarioaren helbidea, Vitoria-Gasteizen, Landaberde kalearen 35. zenbakian, behe-solairuan.

Hirugarrena. Hitzarmenaren 32. artikulua ezartzen duenarekin bat etorriz, egutegi propiorik egiten ez duten edo, nahitaezkoa izanik, egutegiaren kopia batzorde paritariora ezarritako epean bidaltzen ez duten enpresek akta honen bidez onartu den hitzarmeneko lan-egutegia onartzen dutela ulertuko da (aktari erantsi diogu), eta enpresa horietako langile guztiek bete beharko dute, derrigorrez, hitzarmenak aldaketak baldin baditu salbu.

Laugarrena. Lan-egutegia lantoki guztietan jarri beharko da, toki ikusgarrian.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, goian adierazitako tokian eta egunean amaitu da bilera, eta akta hau sinatu dute jardule guztiek, adostasuna erakusteko.

Arabako eraikuntza eta herri-lanen hitzarmeneko lan egutegia 2021

Urtarrila							Otsaila							Martxoa						
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D
				1	2	3	1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5	6	7
4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14	8	9	10	11	12	13	14
11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21	15	16	17	18	19	20	21
18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28	22	23	24	25	26	27	28
25	26	27	28	29	30	31								29	30	31				
Lanegunak 17	Orduak 136						Lanegunak 20	Orduak 160						Lanegunak 22	Orduak 176					

  

Apirila							Maiatza							Ekaina						
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D
			1	2	3	4					1	2		1	2	3	4	5	6	
5	6	7	8	9	10	11	3	4	5	6	7	8	9	7	8	9	10	11	12	13
12	13	14	15	16	17	18	10	11	12	13	14	15	16	14	15	16	17	18	19	20
19	20	21	22	23	24	25	17	18	19	20	21	22	23	21	22	23	24	25	26	27
26	27	28	29	30			24	25	26	27	28	29	30	28	29	30				
Lanegunak 18	Orduak 144						Lanegunak 21	Orduak 168						Lanegunak 22	Orduak 176					

  

Uztaila							Abuztua							Iraila							
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D	
			1	2	3	4							1				1	2	3	4	5
5	6	7	8	9	10	11	2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12	
12	13	14	15	16	17	18	9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19	
19	20	21	22	23	24	25	16	17	18	19	20	21	22	20	21	22	23	24	25	26	
26	27	28	29	30	31		23	24	25	26	27	28	29	27	28	29	30				
Lanegunak 22	Orduak 176						Lanegunak 21	Orduak 168						Lanegunak 21.75	Orduak 174						

  

Urtaria							Azaroa							Abendua							
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D	
				1	2	3	1	2	3	4	5	6	7				1	2	3	4	5
4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14	6	7	8	9	10	11	12	
11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21	13	14	15	16	17	18	19	
18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28	20	21	22	23	24	25	26	
25	26	27	28	29	30	31	29	30						27	28	29	30	31			
Lanegunak 19	Orduak 152						Lanegunak 21	Orduak 168						Lanegunak 13	Orduak 104						

	Jaia
	CH

Lan-egunen kopurua ...237,75	Ordu kopuruak 1.902	Hitzarmen-orduak ..1.726
Oporrak: 176 orduak, 22 lanegunetan edo lan egindako denborarekin proportzionala		

- Irailaren 13 (Olárizu): 6 orduz lan egingo da.
- Abuztuaren 5, tokiko jaia Gasteizen (gainerako herriek egun hori egokituko dute bertako festara)
- Egutegi hau nahitaez bete beharrekoa da enpresan, ondoko kasuetan izan ezik:  
Langileen ordezkaritza badago, eta harekin beste bat adosten bada, 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen, edo legezko ordezkaritza egon ezean, 2021eko otsailaren 15a baino lehen beste bat hitzartu eta Arabako eraikuntzaren hitzarmeneko batzorde paritariora bidaltzen bada (PRECO. Landaberde 35, behea, 01010 Vitoria-Gasteiz).